

ETXEBIZITZA BIRGAITU EDO BERRITZEKO LAGUNTZEN ESKAERA (ERKIDEGOAREN OBRAK)

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

<ul style="list-style-type: none">• Eskaera aurkezten duen pertsonaren legezko ordezkartza egiaztatzen duen tituluaren kopia.
<ul style="list-style-type: none">• Obretarako udal-lizentzia/udal-eskaera eta ordaindutako tasak, halakorik balego.
<ul style="list-style-type: none">• Jabeen Erkidegoaren akta, egin beharreko obrak onartzen dituena. Bertan, onartutako aurrekontuaren zenbatekoa jasoko da, baita finka bakoitzari esleitutako obrarako partaidetza-kuoten zerrenda ere, % 100 batuta.
<ul style="list-style-type: none">• Esku-hartzea osatzen duten Eraikinaren edo Eraikinen Ikuskapen Teknikoaren txostena. Horrek aurkeztu izana egiaztatzen duen zigilua izan beharko du. EITak 1., 2. edo 3. mailako obrak eskatzen baditu, honako dokumentu hauek ere aurkeztu beharko dira:<ul style="list-style-type: none">○ Konponketa horiek eginda badaude, Eraikinaren Ikuskapen Teknikoaren urritasunak zuzentzeko ziurtagiria, dagokion erregistroan aurkeztu izana egiaztatzen duen zigiluarekin.○ Jabeen Erkidegoaren Batzarrak hartutako erabakia, EITren irizpenaren 1., 2. eta 3. mailako obrak egiteko konpromisoa hartzen duena.
<ul style="list-style-type: none">• Eskatutako hornitzaile desberdinen hiru eskaintza; hautaketaren justifikazioa, proposamen ekonomiko onuragarriena ez denean; eta, obrak gauzatzeko kontratua, 45. artikuluan oinarrituta aplikatzeko denean.
<ul style="list-style-type: none">• Obren aurrekontua (kontratututako gremioena), partidaka banakatua, bakoitzaren neurketa eta prezio unitarioa adierazita. Gainera, aurrekontu horretan EITan jasotako 1., 2. eta 3. mailako obrak sartu beharko dira, egin gabe badaude.
<ul style="list-style-type: none">• Obrak hala eskatzen badu, teknikari eskudunaren proiektuaren kopia ikus-onetsia.
<ul style="list-style-type: none">• Ordainsari teknikoaren aurrekontua
<ul style="list-style-type: none">• 2. motako obretarako, energia-efizientzia hobetzeko obretarako: teknikari eskudun onetsiaren proiektua, barnean hartuta esku hartzeko proposamenaren xede den eraikinak duen energia-efizientiaren ziurtagiria, baita proiektuan justifikatuta lortzea aurreikusten den energia-efizientiaren proposamena ere.
<ul style="list-style-type: none">• Obrak hasi aurreko egoeraren argazkiak, koloretan, birgaitu beharreko eraikin-eremuarenak.
<ul style="list-style-type: none">• Beste administrazio batzuetatik jasotako edo jaso beharreko dirulaguntza emateko dokumentuaren kopia.
<ul style="list-style-type: none">• Jabeen Erkidegoaren IFKren kopia.
<ul style="list-style-type: none">• Jabekideen Erkidegoaren titulartasuneko kontu-zenbakia egiaztatzen duen banku-ziurtagiria.
<ul style="list-style-type: none">• Jabeen erkidegoko edo erakunde eskatzaileko hirugarrenaren alta-agiria, beteta, helbide honetan eskuragarri: https://www.euskadi.eus/altaterceros